**MOTZAK** PILAR IKASTETXEKO ARDURADUNEK EGUNGO EGOERAREN BALORAZIO POSITIBOA EGIN DUTE

**GEHIGARRIA** 2004. URTEARI ERREPASOA · **KIROLA** XIV. NAZIOARTEKO XAKE TXAPELKETA

# BARREN

ASTEKARIA

E L G O I B A R K O  A S T E K A R I A · 2004ko abenduaren 24a/XII. urtea/512. zkia



PARROKIKO JAIOTZA MEKANIKOA

# 25 urte mugimenduan

"OLENTZERO GAUERDIKO HEGOAIZEA BERROGEI EGUNEKO HAIZEA" (esaera zaharra)

# Esperientziaren **BALIOA**



Softlan-en aurten 10 urte lanean egin dugu.
Ospatu gurekin.
Urtarrilaren 14ra arte gure produktuek
prezio ezin hobeak dituzte.
Begiratu gure web orria:

**www.esoftlan.com**

**Gabon zoriontsuak eta Urte Berri On guztioi!**

Softlan
analisia & programazioa

**Antonio Arrillaga, 1**
**Tel. 943 74 81 05 · Faxa: 943 74 82 28**
**E-maila: info@softlan.biz**
**Web orria: http://www.esoftlan.com**




TEMPUR Dunlopillo laxy Mediterráneo MOVIFLEX

# Zorionak eta urte berri on!

## "Gabon hauetan oparitu zeure buruari osasuna"

**LAGUNAK**
San Roke kalea, 20
tel: 943 74 44 57
ELGOIBAR

**el desván**
Gipuzkoako hiribidea, 12
tel: 943 17 02 08
ERMUA

Iragarki hau dendan erakutsiz gero **%10**eko deskontua egingo dizugu abenduaren 31ra arte. Deskontua behin bakarrik egingo da.

# Zure bizitzaz nazkatuta?

EGUNEROKOTASUNAK ASPERTU EGITEN ZAITU?

ESPERIENTZIA BERRIEN GOSE ZARA?



## GUK EMANGO DIZUGU AUKERA!

14 eta 30 urte bitartean baldin badituzu,
eta esperientzia berri baten parte hartu nahi baduzu,
idatzi barren@elgoibarkoizarra.com helbidera
eta eman zure izean!

## bizitza berri bat zure zain dago!



asteko notizia



## *Olenchero* iraingarria

Haserre nago gaur, minduta. Aurten abenduaren 17an iritsi da Olentzero Elgoibarrera, eta inoiz baino lehenago ekarri digu oparia guztioi. 2005. urteko agenda bat. Afixa bat du barnean, ele bitan idatzia. *Eguberri on eta Urte Berri Zoriontsu* eta gaztelaniazko ordaina. *Elgoibarko Alkatea* eta gaztelaniazko ordaina. *Elgoibar hiriko Udala* eta gaztelaniazko ordaina. Hasteko eta behin, ez dago filologoa izan beharrik zorion-agurrean "zoriontsu" hitzari -a falta zaiola asmatzeko. Baina hona ekarri nahi dudana harago doa. Alkatearen izenpea ageri da eta hari zuzendu beharko natzaio. Ez naiz ni bereziki matxinatu zalea, baina ezinbestean, eta, zin dagit, ezinbestean da, irain hau salatu, beste irtenbiderik ez dut. Ostiral arratsaldean entzun nuen gaztelania hutseko agenda bat igorri zitzaigula etxera elgoibartarroi, baina ezentzunarena egin nuen, ezin izan zitekeelakoan. Eta berriro diot, ez naiz ni oldartu zalea. Egunkariek, euskara elkarteek, euskaltegiek, eskola eta unibertsitateek... guztiek egiten dituzte agendak. Nik bederen ez dut euskarazko hitzik jasotzen ez duen agendarik horien artean aurkitu. Hori guztia haustera dator gure udala, gaztelaniaz ez eze, ingelesez, frantsesez eta alemanez baitakar agendako edukia. Ez, ordea, euskaraz. Beno bai, barka beza berorrek, azalean *Elgoibarko Udala* dakar, eta kito. Iraingarria eta lotsagabekeria, hori guztia deritzot udalaren urte amaierako opariari. Olentzeroren bila joan beharko dut 24an, nik bederen etorritako bidetik itzuli nahi baitut nire izenean postontzira ailegatu zaidana.

**Ainhoa Lendinez**



## Esperantzari leiho bat

Hori da Belodromoko aktoan Batasunak egindako proposamenak zabaldu duena. Saiakera desberdinak egin eta gero (Lizarra-Garazikoa adibidez), prozesu baterako metodologia aurkeztu du Donostian Batasunak bakea lortzeko. Zergatik orain eta ez lehenago, galdetuko du batek baino gehiagok. Orain dela 25 urte arazoa faltsuan itxi zen. Ezinezkoa zen orduan sortutako markoan independentzia eta sozialismoaren helburuak lortzea, espresuki ukatuak zeudelako (Espainiako konstituzioa irakurtzea besterik ez dago horretarako). Egun, 25 urte eta gero, marko juridiko politikoaren eztabaida irekita dago. Urte hauetan Ezker Abertzaleak aldaketaren beharraren alde borrokatu du. Eragile politiko gehienak aldaketak egitearen aldekoak dira egun. Hitz egiten hasteko garaia da, beraz. Euskal herritar guztien eskubideak errespetatuak izateko elkarrizketa prozesu bat martxan jartzea izango da helburua, herri galdeketa batekin bukatuko dena. Horretarako Batasunak hiru konpromiso hartu ditu bere gain, besteak beste: galdeketaren emaitza errespetatzeko konpromisoa, bide baketsu eta demokratikoak soilik erabiltzeko konpromisoa eta eragile guztien parte hartzea ahalbidetzeko konpromisoa. Bi akordio maila planteatzen ditu: Euskal Herriko eragileen arteko akordioa lehena, herriaren onespena beharko lukeena, gerora frantziar eta espainiar estatuekin negoziatzeko. ETA eta Estatuen arteko akordioa bigarrena, desmilitarizazioa, presoak, iheslariak eta biktimak jorratuko lituzkeena. Eragile guztien ardura da orain proposamena aztertzea eta posizio hartzea. Bere denbora beharko da, dudarik gabe. ETA horietako bat da, eta pausoak emateko borondatea adierazi du. Azken egun hauetan izan diren leherketen karira, Batasunari ekintza horiek gaitzesteko egin zaizkion eskaerak, gainditutako eskema antzuak errepikatzeaz gain, mingarria egiten da tratamendu bera ez erabiltzea senide bat hil duen dispertsioarekin edota dozenaka gazte kolpatu duen torturarekin.

**Pello Mendizabal**

Atal hauek ez dira BARRENen editorialak. Urtero 10 lagun inguru aukeratzen dira eta txandan-txandan idazten dute. Kolaboratzaileen aukeraketa egiterakoan, besteak-beste, pluraltasuna izaten dugu kontuan. Gaiari dagokionean, berriz, kolaboratzaile bakoitzak nahi duena aukeratzen du.

Kexak ....................7

mOtZ MotZ ....................10

gehigarria ....................15

kiRolAk ....................50

# eskutitzak

2004-XII-24

## JOSE LUIS BELLOSORI

Hilaren 11n Jesus Unanueren hiletan bere bizitzari buruzko hitzak zure ahotan entzutean geure burua erreprimitu behar izan genuen elizan eskandalu bat ez egiteko. Argi asko geratu zen zure "auzokidearen" egoeraz ezer gutxi zenekiela azken urteotan, eta heriotza orduan, bakarrik utzi dugula esatean.

Jakin ezazu, Belloso Jauna, bere alaba ez zitzaiola "sarritan" bisitan joaten zuk aipatu bezala, astean zehar berarekin bizi bait zen. Bestalde, egunero lagunekin ibiltzen zen pasiaran eta asteburu eta oporrak familiarteko eta lagunekin igarotzen zituen Karakate Elkartean, "Txabolan" edo Errioxa aldean. Baina ezbairik gabe, goia jo zenuen Jesus "Matiako bakardadean" hil zela baieztatzean. Zure informaziorako, ingresatuta igarotako bi hilabete eta erdietan une oro izan du senitarteko edo lagunen bat ondoan. Harro asko esaten zigun ingurukoak horrenbeste bisitarekin harrituta zeudela! Ezin duzu imajinatu zure hitzaldiak eragin digun samin eta haserrea. Jende ugari hurbildu zaigu zure jokaerarekin amorratuta. Hau dela eta, egindako kaltea konpontzeko moduren bat pentsa dezazun exijitzen dugu. Gu behintzat geure eskuetan dagoena egiten saiatuko gara idatzi hau publika dadin.

Hau guztia esanda, hurrengoan behar bezala informa zaitezen eskatzen dizugu. Are gehiago, zuk esandakoa egia balitz ere, ez genuke ulertuko zerk bultza zaitzakeen horren momentu sentikorrean era honetan jokatzera. Ez duzu eskubiderik.

**J.M. Astigarraga - NAN 72559967G**
**Jesus Unanueren familia eta lagunen izenean**

## MAITASUNEZKO ZORION-POSTALA

Niri Gabonetako egun hauek barregura eragiten didate; denok gauza bera egiten dugu: jan, edan, maitatu... Dana kartara egiten dugu neurri handi batean eta horrek diru asko balio du, baina balore gutxi du. Gainera, ez gara bat ere originalak. Festa hauetako maitasun keinuek erostetxeetan erositako opari horien antza hartzen dute, ene ustez; behin iraungipen-data igarotakoan zaborrara botatzen ditugu. Kale bazterretan aspaldian piztutako argi keinukariak bezala, -orain piztu, orain itzali- gure sentimenduak ernaltzen dira data hauetan, eta horrek ez du balio. Erakusleihoetan guri begira dauden jostailuen antzera datorren hilean alboratuta egongo dira, sasoi hauetan idatzitako zorion-postal asko bezala. Bai, horrelakoxea da sarri askotan amodio-festa hauen ajea: bide bazterretan, aparkalekuetan, edozein modutan, itxura gabe sakabanatutako klinex umelak bezalakoa, ernaldu nahirik eta oraindik saltari ibiltzen den sapo hori moduan. Zarata handia, baina ezer gutxi esaten dute ahalegin keinu horiek, eta nik gauza asko esan nahi dut helbide jakinik gabeko maitasunezko zorion-postal honetan. Jasoko duen postariak ez du sasoi honetako propagandazko alperrikako paper horiekin nahastuko. Zorion-posta honen hartzaileak oso bestelako mezua jasoko du. Postariaren eskutik musu handiak bakarrik jasoko ditu, zigilu baten antzera atxikitutako musuak. Munduan barna norezean doazen eta topatu nahian, inoiz ezagutu zuten, eta inoiz ahaztuko ez duten gustuko pertsona horren musuak baino ez ditu dastatuko. Bai, horrelakoa izatea nahi nuke zorion-postal honetako mezua, espetxeetako zirrikitu itxi horietatik, inolako baimenik gabe, inolako lotsarik gabe sartuko den zorion-postala, iraungipen-datarik izango ez duena, eta bertakoen burmuinean geldituko dena, gogorazteko une zail hauetan ere maite ditugula.

**Juan Luis Mugertza Unanue**

# Urruzunoren begi ezkutua

## Zoriontasuna salgai Gabonetan



Nik ez dut sinisten Gabonetan. Ez dut sinisten Errege Magoetan (beste erregeengan ere ez). Ezta ere, barruko arropa gorria jantzita, urte berriari eskatu beharreko desioetan. Niretzat, urtearen hondarreko egunak ez dira gainontzeko egunekiko ezberdinak. Izan ere, eguberrietan bizitza ez da aldatzen, nahiz eta kaleak argi pinpirinez apaindu. Ustez, tradizio kristauaren arabera, Jesus "salbatzailearen" jaiotza ospatzen den garaian jendeak erakusten duen ontasuna, elkartasuna eta karitatea ez da urtean zehar agertzen. Ez, egun hauek ez dira bereziak, nahiz eta telebista kateek zoriontasuna kontsumitzeko produktu bezala saldu iragarki ugarietan. Azken batean, horixe baita "Gabonetako izpiritua": neurririk gabeko kontsumismoa.

**Jon Eugi**

ASTEKARIA
BARREN

Nafarroa enparantza, 2
20870 ELGOIBAR
☎ 943 74 41 12
Publizitatea:
☎ 943 74 37 04
Faxa: 943 74 37 04
E-posta:
barren@topagunea.com
Helbide informatikoa:
www.topagunea.com/barren
ARGITARATZAILEA
Elgoibarko Izarra

LAGUNTZAILEA Elgoibarko Udala ZUZENDARIA Ainhoa Andonegi KAZETARIA Asier Orbea PUBLIZITATEA Amaia Erkizia MAKETATZAILEA Jaione Unanue ZUZENTZAILEA Unai Villena KOLABORATZAILEAK Esther Gurrutxaga, Jasone Osoro, Ainhoa Lodoso, Nestor Fuente, Pello Mendizabal, Edurne Bilbao, Gotzon Arrieta, Lorea Perez de Albeniz, Jokin Martinez, Montse Arregi, Juanito Gorostiza, Kokoe K.E. eta Urruzuno L.T.. AZALEKO ESAERA ZAHARRA Gotzon Garateren liburutik INPRIMATEGIA Gertu Koop. E. TIRADA 4.275 ale LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-1855

*Elgoibarko Udalak, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria.*

gizarte ekintza
Kondia
DANOBAT
GOITI
ESTARTA

BARRENek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzek ondo identifikatuta egon behar dira argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: **izen-abizenak, NAN** eta **telefono zkia.**

## KEXAK

◆ Herritar batek esan digunez, **Erretxindiko zubian oso argi gutxi dago**: “Basarte eta Erretxindiko bizilagunak asko ibiltzen gara zubi honetan, eta oso ilun dago. Farola gutxi daude, eta daudenak ez dute argi nahikorik ematen. Badakigu obretan dabiltzala ingurune horretan, eta beharbada ezingo da oraindik farola berririk jarri, baina behin behineko argiren bat jartzea ondo legoke”.





◆ Emakume batek esan digunez **Ubitarte inguruko espaloiak oso labainkorrak dira**: “Euria egiten duenean oso arriskutsuak jartzen dira, eta beldurra ematen du bertatik ibiltzeak ere. Duela gutxi erori egin nintzen, eta ez naiz bakarra izan. Euria egiten duenean herriko gune asko jartzen dira oso labainkor, eta konponketa batzuk beharrezkoak dira”.

◆ 511. alean jarri genuen azokaren manifestazioari buruzko kexari erantzunez, ostegunetako azokako merkatariek ondorengoa adierazi nahi dute: “**Alde batetik, manifestazioa zegoela adierazteko megafonia bi egunetan erabili genuen, eta egun batean gazteleraz bakarrik hitz egin genuen arren, bigarrengoan bi hizkuntzak erabili ziren. Gainera, kalean kartelak euskaraz jarri genituen. Bestalde, hileta zegoelako manifestazioa ez zen Plaza Handitik irten, hildakoa eta bere senideak errespetatu genituen, eta zarata atera genuenean, gorpua oraindik ez zegoen Plazan. Honekin batera, gaineratu nahi dugu, hurrengoetan ere, errespetu osoz jokatuko dugula”.**

◆ Emakume batek ondorengo kexa helarazi digu BARRENera: “**San Roke kalean, Institutuko eskaileren ondoan dagoen zabor kontenedore bati zabaltzeko mekanismoa izorratu zaio**, beraz, jendea poltsak kanpoan lagatzen hasi da, pertsona nagusi askok eskuz zabaltzeko arazoak dituztelako.



## TXALOAK



◆ Emakume batek **Elgoibarko Txistulariak txalotu nahi ditu igande goizero egiten duten kalejiragatik, eta batez ere, abenduaren 5ean jo zituzten soinu bereziengatik**: “Txalo handi bat eskaini nahi diet Jose Inazio Sarasua, Juan Karlos Larreategi, Iñigo Legorburu eta Iñaki Goñiri”.

◆ Herritar batek **Elgoibar BH Institutua txalotu nahi du, Batzar Orokorrean eskainitako informazioagatik**: “Irakasleek eta Guraso Taldeak oso ondo informatu gintuzten, eta bide batez, zorionak eman nahi dizkiet jaso berri duten zilarrezko Q sariagatik”.

# 1980-2004 Elgoibarko

***Parrokiako kaperan (Leku Eder) sartu eta 40 metro karratu hartzen dituen jaiotza mekaniko erraldoia ikustea ikuskizun bat da. Jaiotzako egun batek, egunsentitik gauera arte, irauten dituen 8 minutuan ez du ia astirik ematen detaile, irudi eta egileek sartu dituzten keinu guztietaz jabetzeko. Mugimendudun ia 40 irudiak, bakoitza bere eginbeharrean jo eta su ikustea gozamen bat da bistarako. Eta are ikusgarriagoa da jaiotzaren atzealdean eta azpialdean ezkutuan geratzen dena; kontrol panelak, era guztietako mekanismoak eta kable andana nahaspila. Horrela bakarrik uler daiteke zenbat lan ordu sartu behar izan dituzten Elgojaiotzako kideek 25. urteurreneko jaiotza prestatzen.***

## ELGOJAIOTZA

Elgojaiotza, Parrokiako Jaiotza Mekanikoa egiteaz arduratzen den elkartea, 98an sortu zen eta 14 kidek osatzen dute egun. Lehen jaiotza, ordea, San Bartolome parrokia barruan jarri zen 1980. urtean. Garaiko katekisten laguntzaz lau lagunek osatu zuten, tartean, Antonio Barrenetxea eta Antonio Zabaleta zeudelarik. Bi elgoibartar hauek izan dira 25 urtez jaiotza mekanikoa prestatzen hutsik egin ez duten bakarrak. “Azpeitiko jaiotzak 100 urtetik gora ditu eta hura ikusita hasi ginen geu ere” azaldu digu Antonio Zabalak. “Ezberdintasun nagusia Azpeitikoa urtetik urtera ez dutela aldatzen da. Gainera, hango piezak uraren indarraz mugitzen dira eta Azpeitiko pertsonaia xelebreak izandakoak irudikatzen dituzte. Elgoibarren jarri genuen mugimendudun lehen pieza 81. urtean jarri genuen haize errota izan zen”, dio Zabalak.

## BERRIKUNTZAK

Aurtengoa jaiotza berezia izango da, 25. urteurrena ospatzeko berrikuntza asko sartu baitituzte. Iazkoa amaitu orduko lanean hasi zirela azaldu digu Antonio Barrenetxeak, “guardia zaharreko irudi batzuk mantendu ditugun arren, ia dena berria da aurten, eta sekula baino mugimendudun irudi gehiago sartu ditugu. Bestalde, giroa sortzeko soinuak jarri ditugu estreinakoz. Iluntzean esaterako, txitxarren soinua entzun ahal izango da edo oilarraren kukurrukua egunsentian. Suge liluratzaile baten txirula doinuak ere entzungai izango dira”.

San Rokeko baseliza eta Zelandi baserria ere sartu dituzte jaiotzan. “Hauek eta beste elementu batzuek ez daukate zentzurik jaiotza batean, anakronikoak baitira, baina horrelako lizentzia batzuek hartzen ditugu. Irudien tamaina ere ez da proportzionala eta uniformea, baina gurea jaiotza mekanikoa da, hori da gure jaiotzaren berezitasun nagusia”.

## MUGIMENDUDUN IRUDIAK

Mugimendudun irudiak oso delikatuak direla aitortu digu Antonio Zabalak, “gaur martxan egon daitezke, baina bihar agian geratuta daude erdiak. Batzuetan irudiak sortzea ez da horren zaila, behar bezala funtziona dezaten lortzea baizik, ustekabeak eta huts egiteak edonon eta edonoiz sortzen baitira. Motorrak oso txikiak dira eta indar gutxi dutenez askotan trabatu eta erre egiten dira. Mantentze asko behar dute. Hortaz, mugimendudun piezak banan-banan funtzionatzea zela onena konturatu ginen. Batek huts eginez gero dena geratu beharrean, akatsduna gauean konpon genezake gure ‘kirofano’ partikularrean. Askotan nekatu behar izaten dugu burua zerk huts egiten duen antzemateko eta irudimena erabili okerrak zuzentzeko edo nahi ditugun

## BERRIKUNTZAK IRUDITAN






# Jaiotza Mekanikoa



*Elgojaiotzako kideak.*



*1998ko jaiotzean oinarritutako maketa. (Kultur Etxeko ganbaran)*

efektuak lortzeko, kea edo behe-lainoa, esaterako".

Mugimendudun pieza guztiak gordetzen dituzte eta ez daude salgai, erosle bat baino gehiago prest azaldu izan den arren. Denetaz daude harro baina kuttunena "Pepi" garbitzailea dela azaldu digute, "egin genuen mugimendudun hirugarren pieza da eta une honetan jaiotzan dagoen beteranoena. Aurten, gainera, arropa aldatu diogu eta ikurrinaren koloreekin jantzi".

## JENDE ARRAKASTA

Jende arrakasta itzela izaten du jaiotzak eta leku guztietatik etortzen da jendea. "Gu ez ginen horrenbeste konturatzen, herriko tabernari eta komertzioen bitartez jakin genuen. Askotan gertatzen den legez, propagandarik onena ahoz ahokoa izaten da".

Urtarrilaren 17ra bitartean egongo da elgoibartar hauek egin duten lanaz gozatzeko aukera San Bartolome Parrokiako kaperan.

**Parrokiko Jaiotzaren ordutegia**
**Astelehenetik ostiralera:**
17:30-20:30
**Larunbat eta jaiegunetan:**
10:30-13:30 / 17:30-20:30
Parrokiako kaperan.
(Sarrera Leku Eder parketik)
Urtarrilaren 17ra arte.

**"Jaiotzaren 25. urteurrena" erakusketa**
**Astelehenetik larunbatera:**
19:00-21:00
**Jaiegunetan**
12:00-14:00
Kultur Etxeko erakusketa gelan eta ganbaran. Urtarrilaren 6ra arte.









# 8 hilabeteren ostean Pilar Ikastetxearen egoera normaltasunera itzuli da

## Ikasturte honetan187 ikasle eta 20 irakasle ditu ikastetxeak

Maiatzean hartu zuten gurasoek Pilar Ikastetxearen titularitatea, eta 8 hilabete pasa ostean egin duten balorazioa oso positiboa da. Nekane Aranburu zuzendariak eta Jose Luis Larrañaga diruzainak esan digutenez, "ikastetxea normaltasun osoz funtzionatzen ari da, eta hori da garrantzitsuena, proiektua ondo finkatu da". Gaur egun, ikastetxearen jabetza gurasoek eta Gipuzkoako Diozesiak daukate erdibana.



Zuzendaritza berria 16 lagunek osatzen dute, eta beraien helburuak kalitatezko irakaskuntza eskaintzea, ikasleei heziketa akademiko osoa eskaini eta beraiengan etika, giza baloreak eta kristautasuna sustatzea dira. Ikastetxearen puntu indartsuena kalitatea zela adierazi ziguten: "Ikastetxe desberdinetatik zoriontzen gaituzte, gure ikasleak oso ondo prestatuta iristen direla esanez. Aspektu horretan, harro gaude". Puntu ahulena, berriz, ikasle falta dela aitortu zuten: "187 ikasle ditu ikastetxeak gaur egun, gutxi gora behera, izan beharko lituzkeenak baino 50 gutxiago". Irakasleei dagokionean bestalde, iaz zeuden guztiak bertan gelditu direla esan ziguten: "Eskertzekoa da irakasleen jarrera. Egoera latz honen aurrean denek bat egin zuten, eta bertan gelditu dira. Oso gustura gaude beraiekin".

Bukatzeko, Elgoibarko familiak beraien semeak Pilar Ikastetxean matrikulatzera animatu nahi dituzte: "Otsaila aldera irekiko da matrikulazio kanpaina, eta gure nahia matrikulazio kopurua handitzea da".

**Postal lehiaketa**

Bestalde, Pilar Ikastetxeko postal lehiaketako irabazleak Esteban Gil (Haur Hezkuntza), Nora Fernandez (Lehen Hezkuntza) eta Aitor Alvarez (DBH) izan dira. Urtero bezala, Pilar Ikastetxeko Euskara Batzordeak Gabonetako postal lehiaketa antolatu du "Mundua hobetu nahi dut" lemapean.



# Bigarren urtez Garcia-Abad lehengusuek osatutako taldeak irabazi du XVIII. Jaiotza Lehiaketa

## Guztira 33 lan aurkeztu ziren, eta 133 haurrek hartu zuten parte



AITOR

Parrokiako Katekistek antolatuta, joan zen abenduaren 12an ospatu zen XVIII. Jaiotza Lehiaketa. 133 haurrek hartu zuten parte lehiaketan, eta guztira 33 jaiotza desberdin aurkeztu ziren. Aipatzekoa da askoz neska gehiagok parte hartu zuela: 133 hauetatik 25 bakarrik ziren mutilak, beraz, lehiaketako partehartzaileen %81,3 neskak izan ziren. Epaimahaikoek haurren irudimena azpimarratu zuten sariak ematerakoan, izan ere, mota guztietako materialez eginiko jaiotzak aurkeztu baitziren lehiaketara. Besteak beste, botoiak, arrautzak, kartoia, plastikoa eta papera erabili zituzten.

**Irabazlea kortxoa**

Jaiotza guztien artean kortxozko tapoiez eginikoa izan zen irabazlea. Egileak, Garcia-Abad lehengusuak izan ziren, (Julene, Mikel, Olaia eta Anton), eta iaz ere beraiek izan ziren garaileak. Bigarren postuan Rocio Ortega, Veronica Moreno eta Kristina Fernandez sailkatu ziren, eta hirugarrena Sergio Arroyo izan zen.

Sari banaketa egin ostean, talde bakoitzak bere jaiotza Zubiaurre-Murua familiak Errosario kalean daukan lokalera eraman zuen, eta bertan egongo dira ikusgai Gabonetan zehar.

## Artekaleko eskailera mekanikoak Gabonetan jarriko dituzte martxan



Abendu hasieran kokatu zituzten eskailera mekanikoak Artekalen eta gauzak ondo badoaz behintzat, Gabonetan jarriko dituzte martxan. Eskailera mekaniko hauek Austriatik ekarri zituzten bi zatitan banatuta. 10.000 kiloko pisua daukate, eta luzeran 14,30 metro neurtzen dute.

Eskailera mekaniko hauek Artekaletik Bernardo Ezenarro kalera dagoen 5 metroko desnibela errazago igotzen lagunduko dute.

2005. urte erdialdera bestalde, Ermuaranbide kaleko etxe berrietan ere, eskailera mekanikoak ezarriko dituzte. Kasu honetan 15 metroko desnibela dago puntu baxuenetik altuenera, beraz, hiru zatitan banatuta, 60 metroko luzera duten eskailerak jartzea aurreikusten da.

Momentuz, bi lan hauekin bukatuko da Elgoibarren eskailera mekanikoak jartzeko dagoen proiektua.

## Ikastolako txosnan txahala erreko dute Gabon Zahar eguneko ferian

Abenduaren 31ko Gabon Zahar feria egunean txahala erreko da Elgoibar Ikastolak urtero bezala antolatuko duen txosnan. Txahal hau Armueta, Ziarda, Benito eta Barrutia harategien emaria da. Goizez erreko dute txahala, eta eguerdiko 12:00etatik aurrera txahal pintxoak eskainiko dira.



AZKUE

## Merkatu Plazako dendariek 60 euroko 4 sari banatu dituzte

Hilabete honetan 60 euroko 4 sari banatu dituzte Merkatu Plazako dendariek. Emiliano Marcos, Begoña Leniz, Alicia Marcos eta Arantxa Mendikute izan dira irabazleak. Saria erosketa txeketan jaso dute, eta Merkatu Plazako postuetan gastatu beharko dute. Zorionak!



## 2005eko egutegiak

Udaleko Euskara Batzordeak 2005. urteko egutegi handiak eta txikiak argitaratu ditu. Honetarako Vicente Ansola argazkilari kantabriarraren argazki bat aukeratu dute. Bertan, Pilar ikastetxerako zubi berria ez ezik, Kultur Etxea eta inguruko beste hainbat etxe ere ikus daitezke. Garrantzia berezia du bestalde, zubi gainean ageri den usoak.

Egutegi txikian herriko telefono zenbaki erabilgarrienak ageri dira. Hauek buzoneatu egingo dira, eta handiak Kultur Etxeko Euskara Sailean eskuratu daitezke, goizeko 8:00etatik 13:00etara.

## Ostegunetako azokarako lizentziak

Abenduaren 31an bukatuko da ostegunetako azokan saltzeko lizentziak berritzeko epea. Izan ere, Udalak jakin beharra dauka zenbat leku hartuko duten saltokiek 2005eko urtarrilaren 1etik aurrera Sigman kokatuko den azokan. Udalak adierazi duenez, egungo saltzaileek lehentasuna izango dute. Bestalde, lizentzia jasotzen duenak derrigorrean ipini beharko du bere postua urtarrileko lehen laneko ostegunean. Arrazoi justifikaturen bat dagoenean bakarrik huts egin ahal izango du bi ostegun jarraietan, bestela, baimena automatikoki kenduko zaiolako.

## Gabonetako opariak euskaraz egiteko kanpaina

Euskara biziberritzeko egitasmoaren barruan, Gabonetan opariak euskaraz egiteko 4.500 katalogo banatu ditu Udaleko Euskara Sailak. Bertan eskuragarri daude euskaraz ekoizten den musika, informatika materiala, film, liburu, aldizkari, jostailu, joko eta web helbideak. Kanpaina honen bidez, hizkuntzaren transmisioan eragin nahi da, gurasoei euren seme-alabentzat lagungarri izango diren euskarazko produktuen berri emanez.

### Urte zaharrari astebete barru esango diogu agur

# ZER IZAN DA, ZURE USTEZ, 2004KO ONENA ETA TXARRENA?



## MARI MAR PEREZ

**28 urte, administrari laguntzailea**

2004. urtea orokorrean oso ona izan da niretzat. Ezkondu egin naiz, eta Etxebideko etxe bat tokatu zait. Ezin naiz kexatu. Txarrena Madrilen gertatutako atentatuak izan dira.



## VICENTE CARO

**30 urte, koordinatzailea**

2004ko albiste tristeena Madrilgo atentatuarena izan zen. Nire ustez hori izan da aurtengo gauzarik txarrena. Onena, berriz, Espainiako printzearen ezkontza izan da.



## IBAN LEGARDA

**17 urte, ikaslea**

2004. urteko gauzarik onena Eibar futbol taldea oso ondo dabilela izan da niretzat. Futbola asko gustatzen zait, eta hori albiste oso ona da. Txarrena, berriz, Irakeko gerra izan da.



## MARIA JESUS YESTE

**59 urte, etxekoandrea**

Munduan dauden gatazke,k nekatu egiten naute. Maila pertsonalean, nire amaren heriotza izan da 2004ko tristeena, eta onena nire iloba oso ondo hazten ari dela, horrek ematen dit poztasuna niri.



## CONCHITA GONZALEZ

**52 urte, erizain laguntzailea**

Urteko onena nire helburu txikiak lortzeko egin dudan eguneroko lana izan da. Txarrena, berriz, munduan dagoen gosea. Tamalgarria da 2004. urtean oraindik jendea gosez hiltzen ikustea.



## NIEVES IZA

**75 urte, etxekoandrea**

Urte osoa sendagilearengana joaten pasatu beharra izan da txarrena. Oraintxe hasi naiz apur bat errekuperatzen, eta ia datorren urtean osasunak gehiago laguntzen didan. Onena, bestalde, nire iloben jaiotza izan



Jose Ramon Urresti
"Mele"

*Azaroaren 28an Jose Ramon Urresti "Mele"ren oroimenezko omenaldia ospatu zen. Bere sendiak Sigmako kaperan izan zen mezara joan ziren guztiei eskerrak eman nahi dizkie, motorrean joan zirenak, Marta eta Nadiari bertsoa kantatzeagatik, Ion-i meza emateagatik eta, bereziki, Txusko Motoklub-a eskertu nahi dugu, guztia antolatzeagatik.*

*Esker mila guztioi eta aurrera zaletasunarekin.*


Elgoibarko
EAJ-PNVk
jai zoriontsuak
opa dizkizue
elgoibartar guztioi
EAJ
PNV


Bai
Bai
piztu Estatutu Berria

# USUA
terraza



**Terraza ederra!**

Gabon jai zoriontsuak opa dizkizuegu!



Pintxoak
Kazuelitak...



Giza Eskubideen plaza, 1
Tel.: 943 74 16 00

# URTIARI ERREPASUA

# 2004

Barren

ASTEKARIA



**Urtarrilak 16**
**MERKATU PLAZAKO ZUBI ZAHARRA BOTA ZUTEN** urtarrilaren 9an. 1914an eraikitako zubi zaharra bota, eta berria ireki zuten.



**Urtarrilak 16**
**GUREAN BAI – MERKATARITZA** proiektuaren ardura aldaketa. Ainara Betegi azpeitiarrak hartu zuen urtarrilean Nagore Dorronsoro debarraren lekua.



**Urtarrilak 28**
**ELGOIBARKO EUSKARAREN GAINEKO IKERLANA** aurkeztu zuten. Jesus Mari Makazaga filologoak, Elgoibarko Udalak eta Elgoibarko Izarra Kultur Elkarteak aurkeztu zuten Kultur Etxean.



**Urtarrilak 30**
**ZUZENDARITZA BERRIA MORKAIKO MENDIZALE ELKARTEAN:** Urte berriarekin batera, jende berria sartu zen Morkaiko Mendizale Elkartean. Zortzi gaztek hartu zuten aurreko zuzendaritzaren erreleboa.

Lanbroa




Astelehenetik ostiralera irekita goizeko 7etatik aurrera
Larunbata eta jaiegunak goizeko 8etatik aurrera

Pedro Muguruza, 5 · Tel.: 943 74 38 11 / 943 74 08 06

JOSE pinturak
(Txema)
Mota guztietako pintura
eta enpapelatuak.
Zoluak, moketak, sintasola,
kortxoa, etab. jartzen dugu.
San Bartolome, 28-1 ezk • Tel: 943 74 12 55 • Mobila: 629 44 23 14

Anchústegui
Sanyfer
ESPOSIZIOA
ALMAZENA
BULEGOA
Olaso industrialdea
Olasope, 5 · 20870 - ELGOIBAR
Tel: 943 74 33 44 - 74 23 71
Faxa: 943 74 37 11

## PROTAGONISTAK



**MAUXITXA BASERRIA**

**XXII. Gazta Lehiaketa**
Gabon Zahar Feriako XXII. Gazta Lehiaketa irabazi zuen.



**MINTXETA ATLETISMO TALDEA**

**Aldundiak Kirol Jarduera Antolaketa Onenaren saria**
Gipuzkoako Foru Aldundiak Kirol Jarduera Antolaketa Onenaren saria eman zion, Mugerza Krosaren antolakuntzan egindako lanagatik.

PROTAGONISTAK

**ABRAHAM CHEBII**

**Nazioarteko Mugerza Krosa**
Korrikalari keniarra hirugarren aldiz nagusitu zen Nazioarteko Mugerza Krosean.



**EDUARDO ARRILLAGA**

**Luis Valtueña Nazioarteko Argazki Lehiaketan**
Argazkilari elgoibartarraren bi argazki saritu zituzten Luis Valtueña Nazioarteko Argazki Lehiaketan.



CORDON VILARCHAO
DEKORAZIOA
Kanpo eta barneko estaldura
Zoluen kolokazioa
Lakadura: egur, aluminio, P.V.C.
Pintura orokorra
San Roke, 7 behea
Pol. Olaso - Olasope kalea, 18 - 25 eta 26 moduloa
Tel. 943 740 570

Malape taberna
Orain astegunetan
Zorionak eta Urte Berri On!
San Frantzisko, 60



MEKANOSA
Errosario, 30
Tel: 943 74 02 84 Elgoibar
★ IDAZMAKINEN SALMENTA ETA KONPONKETA
★ MULTIKOPISTAK
★ FOTOKOPIADORAK
★ PLANOEN BIRREGILEAK
★ ERLOJU INDUSTRIALAK
★ MARRAZKETA MATERIALA
★ INFORMATIKA
★ FAX

URKIDI AHOLKULARITZA
KONTABILITATE
LAN
FISKAL
Kalamua, 12 · ELGOIBAR
Tel-Faxa: 943 74 18 91
ASEGURUAK



**Otsailak 3**
**ELGOIBARKO UDALAK, AHIZE HIZKUNTZA AHOLKULARITZAK ETA IMHK ELKARLAN HITZARMENA ADOSTU ZUTEN.** IMHren 3 urterako euskararen erabilera plana sustatzea eta euskararen erabilera lan mundura zabaltzea zen hitzarmenaren helburua.




**Otsailak 20**
**UNCETA ENPRESAK 130 URTE BETE ZITUEN.** 1874an ireki zuen Juan Pedro Uncetak lehenengo ferreteria. Lau belaunaldi ezagutu ditu ordutik, eta egun Ricardo Garate eta Pedro Unceta dira presidenteak. 255 langile eta 9.000 m²ko biltegiak ditu.




**Otsailak 27**
**ASTEON TELEBISTA ALDIZKARIA** BARRENekin batera etxean jasotzen hasi zineten elgoibartarrok. Euskara Elkarteek bultzatutako telebista aldizkariko zuzendaria Jasone Osoro elgoibartarra zen. Tamalez, ekainean, eta arrazoi ekonomikoak tarteko, Asteon kaleratzeari laga zion Herrikok (Herri Komunikabideen Kooperatibak).

karkizano
San Frantzisko, 14 – Tel. 943 74 05 49

Arrieta
San Bartolome, 18
Tel. 943 74 08 49

Iriondo TABERNA
Astegunetan 7:00etan irekitzen dugu eta asteburuetan 9:00etan
Pedro Muguruza, 2 · Tel: 943 74 00 15

NORFO
Ondo pasa Gabonak!
• ELKARTEEN ALDAKUNTZA ELKARTZE ETA ERAKETA.
• LAN, KONTABILITATE eta FISKAL AHOLKULARITZA.
• ALOKATZE KONTRATUAK
• JUBILAZIOA (Pentsioak)
P. M. Urruzuno, 6. Tel: 943 74 31 40 Faxa: 943 74 41 23

Bukatu S. Coop.
Olaso industrialdea. Olasope, 66-A
Tel.-Faxa: 943 74 42 54 - 20870 ELGOIBAR
MEKANIZATUEN TAILERRA

## PROTAGONISTAK



**Otsailak 13**
**ARIMA BELTZA** Blues&rock talde elgoibartarrak 3 kontzertuko bira txikia eman zuen Andaluzian. Elgoibartarrek Jerez de la Frontera, San Fernando eta Cadizera eraman zituzten euskarazko blues doinuak.

### PEDRO CERVIÑO



**Island Peak (6.189 m.) mendia igo zuen bakarrik**
Nepalen, Everesteko eskualdean, dagoen Island Peak mendia igoz, gizona bere ametsen neurrikoa dela frogatu zuen Pedro Cerviño (1977) elgoibartarrak. Egun Australian bizi da eta 8.000 metroko mendi bat igotzeko asmoa duela aitortu zigun.

### SABIN OSORO



**"Etiopia" argazki erakusketa**
"Etiopia" argazki erakusketan saldu zituen koadroekin lortutako dirua Miski Taldeari eman zion argazkilari elgoibartarrak, Peruko haur behartsuentzako dirua lortzeko kanpainarekin aurrera jarrai zezaten.

### UXUE ALBERDI



**2. saria lortu zuen Berrigarako Amodiozko Gutunen Lehiaketan**
19 urteko elgoibartar gazteak 2. saria lortu zuen Berrigarako Amodiozko Gutunen Lehiaketan, bigarren urtez jarraian.

Lazanes

Pintxoetan aukera zabala
P. Muguruza, 7 Tel: 943 74 16 76

Gorbea TABERNA
Jai zoriontsuak!
Santa Ana, 10 • Tel: 943 74 05 80

BRONCES GARITANO, S.A
BRONCES GARITANO, S.A.
Urte Berri On guztioi!
Olaso kalea, 15 · 20870 ELGOIBAR · Tel: 943 74 41 25/74 41 26

# 2004 MARTXOA



Martxoak 18
**KIRIBILKA PROGRAMA** martxoaren 26an hasi zen. Haurrei eta gurasoei zuzendutako programa honen helburua, Elgoibarko familietan euskararen presentzia bultzatzea izan da.



Martxoak 18
**MADRILGO ATENTATUAREN KONTRAKO KONTZENTRAZIOA**
Martxoaren 11n Madrilen izandako atentatuaren kontrako kontzentrazio eta lan uzteetan jende ugari bildu zen.



Martxoak 18
**PILAR IKASTETXEA 2006. URTEAN ITXI EGINGO ZUTELA** adierazi zuten San Viator Kongregazioko apaizek. Ekainean jakin genuenez, gurasoek hartu zuten ikastetxearen ardura, eta 6 urtez gutxienez, irekita mantenduko dela azaldu zuten.



Martxoak 18
**ELGOIBARKO IZARRA ETA UDALAK 2004KO HITZARMENA SINATU ZUTEN.** Udalak 210.000 euroko dirulaguntza eman zion Elgoibarko Izarra Kultur Elkarteari 2004ko proiektuak finantzatzeko.


ONDAIN
Kalitatezko tindategia
Arropen eraldaketa eta konponketa
San Frantzisko, 32 Tel. 943 74 35 08

ETXEPE
MEKANIZATUAK
MEKANIZATU HAUNDIAK
LAN BEREZIAK
Ibaitarte Industrialdea, A2
Tel.943 74 12 97 - 74 06 64
Faxa 943 74 43 21
Web orria: www.etxepe.com
e-posta: etxepe@etxepe.com

ELENA
ileapaindegia
Depilazio Elektrikoa
San Frantzisko 49-1 Tel: 943 74 11 89

Mandiola Egurrak S.L.
Domingo Arrizabalaga
SALEROSKETA
BASOEN MOZKETA
Juan Mugerza, 3 ☎ 943 74 12 56 - (mobila) 609 53 23 83

## PROTAGONISTAK



### IÑAKI INSAUSTI

**Jubilatuen Egoitzako presidentea**
Martxoaren 5ean ospatu zen Jubilatuen Egoitzan Batzar Nagusia, eta berriz ere, bera aukeratu zuten presidente.



### PEDRO AZPIAZU

**Gipuzkoako Merkataritza Ganberak saritua**
Gipuzkoako Merkataritza Ganberak artisau tradizionalak saritu zituen otsailaren 27an, eta horietako bat grabatu artistikoak egiten dituen Pedro Azpiazu elgoibartarra izan zen.

## PROTAGONISTAK



### ION REMENTERIA, LEIRE DIEGUEZ eta AMAIA JAUERGI:

**M-11, elgoibartarrak Madrilen**
Euskaldunok oso gertutik jarraitu genuen Madrilgo sarraskia, baina hiru elgoibartar hauek, bertan zeuden martxoaren 11n.



### MARKEL BERGARA

**Realaren deialdian sartu**
17 urteko futbolari elgoibartarra Realaren deialdian sartu zen lehenengo aldiz Bartzelonaren kontrako partiduan. Ez zuen partidua jokatzeko aukerarik izan.

IMH
Makina Erremintaren Institutua
Instituto de Máquina Herramienta
www.imh.es

Azkue Auzoa, 1
20870 ELGOIBAR
Gipuzkoa

Tel.: 943 74 41 32
Faxa: 943 74 41 53
imh@imh.es





**Apirilak 2**
**ELGOIBARKO PERKUSIO TALDEA** Herriko Antzokian eskaini zuen kontzertu batekin aurkeztu zen jendaurrean. Gorka Mujika, Inazio Bereziartua Musika Eskolako irakaslearen gidaritzapean gaurko ikasleek eta ikasle izandakoek osatzen dute taldea.



**Apirilak 21**
**UFALETATIK BABESTEKO** eta ibaiaren saneamenduaren alorreko lanak inauguratu zituzten agintariek. Proiektuak 25.616.000 euroko kostua izan zuen.



**Apirilak 20**
**ESTATUKO SALBAMENDURAKO TXAKURREK ALBA FUNDIZIOKO HONDAKINETAN ENTRENAMENDUAK.** Euskadiko Salbamendurako Taldeek antolatutako saioan Asturias, Las Palmas, Tenerife, Alemania eta Euskaditik etorritako txakurrek parte hartu zuten.



**Apirilak 31**
**JARBE ENPRESA, ALBA FUNDIZIOA ETA ETXEZURI BASERRIA BOTATZEN HASI ZIREN** Maala 2 proiektuari dagozkion etxebizitzak bertan eraikitzeko. Hori dela eta, Gazte Asanbladakoek Gaztetxea laga beharra izan zuten.




HERRI ESKOLA

*Eguberri*
*eta Urte berri On!*

## PROTAGONISTAK



**BORJA DIEZ**

**Atletismo Txapelketa irabazlea**
Mintxeta Atletismo Taldeko Borja Diez antxintxikariak alebin mailako Gipuzkoako Eskolarteko Atletismo Txapelketa irabazi zuen.



**JOSU MUJIKA**

**"Plazer bila (atseginez)"**
Dantzari eta koreografoak bere azken lana, "Plazer bila (atseginez)" dantza teatro ikuskizuna estrenatu zuen. Elgoibartarra zuzendari artistikoa, koreografoa eta eszenografiaren arduraduna zen.

## PROTAGONISTAK



**NEREA EGAÑA**

**Eibarko I. Aerobik Maratoia irabazlea**
Udal Kirol Patronatuko aerobik irakasleak Eibarko I. Aerobik Maratoia irabazi zuen. Ehun lagunetik gora aritu ziren bi ordutik gora iraun zuen saioan.



**ITZIAR IRURETA**

**Boxeo borrokaldi batean parte hartu zuen Derion**
30 urterekin boxeoan hasi berria, Derion Marian Gonzalezen aurkako borrokaldia galdu arren, borroka aurreko beldur eta itxaropenak azaldu zizkigun.

PREZISIO MUNDU BAT
MYL
TALLERES MYL S.A.
Zorionak eta Urte Berri On!
Mendarozabal industrialdea,2-3 - 20850 **MENDARO**
Tel. 943 75 70 03 · Faxa: 943 757 130
E-posta:myl@myl.es · http:www.myl.es

INAZIO BEREZIARTUA MUSIKA ESKOLA
• Inazio Bereziartua Musika Eskola •

*Aurtengo Gabonetan musikaz gozatu benetan!*



**Maiatzak 28**
**C.D. ELGOIBARKO KADETEEK MAILAZ IGOTZEA LORTU ZUTEN.**
Aurtengo denboraldian kadete mailako 1. mailan jokatzen ari dira.



**Maiatzak 10**
**ERAIKUNTZAREN SEKTOREKO GREBAK** eragin nabarmena izan zuen Elgoibarren. ELA, LAB, UGT eta CCOO sindikatuek deituta maiatzaren 10ean hasi zen, eta lehenengo egunean %90eko erantzuna izan zuen.



**Maiatzak 14**
3.240 langilerekin, **ELGOIBAR** da Debabarrenean **LANGILE INDUSTRIAL GEHIEN** dituen herria. Debegesak eginiko ikerketaren arabera, 580 enpresatan , 12.447 langile industrial daude.



**Maiatzak 28**
**250 LAGUNEKIN PARTAIDETZA ERREKORRA HAUTSI ZUEN ELGOIBARKO MENDI ITZULIAK.**

IDAMA
ADAMA
✖ ILEAPAINDEGI MISTOA ✖ MAKILAJEAK
✖ EMAZTEGAI/SENARGAIENTZAKO ORRAZKERAK
SOLARIUM-a
Urte Berri zoriontsua denoi!
Santa Ana, 7behea. ☎ 943 74 40 26 ELGOIBAR

AEPI
Txintxo
Inmobiliaria
Gabon jai zoriontsuak
San Bartolome, 2 behea
Tel: 943 74 34 65



**Otsailak 13**

**MISKI ELKARTEAK APADRINAZIO KANPAINA JARRI ZUEN MARTXAN,** Peruko haurrak eskolaratzeko helburuarekin.

## PROTAGONISTAK

### UNAI ZULAIKA



**EB-IU alderdiko zinegotzia**

Igor Irigoien EB-IU alderdiko zinegotziak bere kargua utzi zuen martxoan eta Unai Zulaika elgoibartarrak bete zuen harek utzitako hutsunea.

### MARIA FERREIRO



**Euskadiko Soinu Zahar txapelketa irabazi zuen.**

Sei elgoibartarrek hartu zuten parte Legazpin jokatu zen finalean, eta Maria Ferreiro izan zen irabazlea bere mailan.

### IKER TXURRUKA



**ETB Kantxa torneoan**

Pilotari elgoibartarrak ETB Kantxan parte hartu zuen. Afizionatu mailan txapelketarik garrantzitsuena da hau.

Gabiola GESTORIA
• Ibilgailuak
• Garraioak
• Gai orokorrak
AXA ASEGURUAK
San Frantzisko, 22 - Tel-Faxa: 943 74 07 97 - ELGOIBAR

NAVA S.L.
Inprimategia
ZORIONAK eta URTE BERRI ON!

INMUEBLE AGENTZIA
ARBELOA INMOBILIARIA
Jai zoriontsuak!
San Frantzisko, 34
Tel./ Faxa: 943 74 84 27

ITZALA Edergintza
Amaia Zubiaurre
- Laser depilazioa
- Depilazioa elektrikoa
- Aurpegi garbiketa
- Makilajea
- Masajea
San Frantzisko, 49 - 1 esk. Tel. 943 74 43 03



**Ekainak 1**

**HAUNDI FUTBOL TALDEAK HIRUGARREN MAILARA** igotzea lortu zuen Lesakako Beti Gazte taldeari 0 eta 1 irabazi ostean. 400 zaletutik gora joan ziren Lesakara eta itzuleran izugarrizko harrera egin zieten herritarrek jokalariei.




**Ekainak 11**

**DANOBAT ENPRESAK URREZKO EZTEIAK OSPATU ZITUEN.** Besteak beste, enpresako bazkide sortzaileei omenaldia, Danobateko tailerreko eskuliburua eta Danobaten historia eta etorkizunera begira dituzten asmoak biltzen dituen liburua kaleratu zituen.



**Ekainak 4**

**ZAPATUETAKO "BOTEILOIA"**ri amaiera emateko alkoholaren kontrako ordenantza berria onartu zuen Udalak.



**Ekainak 13**

1.824 botorekin EAJ nagusitu zen **ELGOIBARREN EUROPAKO LEGEBILTZARRERAKO HAUTESKUNDEETAN**. %50,52ko abstentzioa izan zen daturik azpimarragarriena.

albe

LAUKETAK - MORTASAKETAK
BROTXAKETAK
NONIUS GRABATUAK

GABON ZORIONTSUAK ELGOIBAR!

Sigma Industrialdea · Xixilion, 2 beheko solairua 9
Tel. 943 743 286 ELGOIBAR (GIPUZKOA)
talbe@euskalnet.net / www.albesl.com

DEBAPE
INPRIMATEGIA
komunikazio grafikoa

- DISEINU GRAFIKOA
- OFFSET LITOGRAFIA
- FOTOKONPOSIZIOA
- PUBLIZITATE DISEINUA
- ERA GUZTIETAKO IRAGARKI KOMERTZIALAK
- INPRESIO DIGITALA

Zorionak eta Urte Berri On!

Olaso industrialdea, 27 - **ELGOIBAR**
Tel.: 943 74 40 58 • Faxa: 943 74 41 78
E-posta: debape@telefonica.net


"Gure aurretik bidea ireki zutenek merezi dute gure lana, ondorengoek gurea berma dezaten"
Euskadi 2004
50.urteurrena
GABON-JAI ZORIONTSUAK eta 2005 URTE BERRI ON
Elgoibar B.H. Institutua


Marem
Kafe bereziak
Etxera eramateko jakiak
Enkarguzko jakiak
Bernando Ezenarro, 4
Tel.: 943 74 82 48
Gabon zoriontsuak igaro!


PILAR IKASTETXEA
Elgoibar
GABON ZORIONTSUAK ETA
URTE BERRI ON


Zorionak eta Urte Berri On
Felicidades y Próspero Año Nuevo
Joyeux Noël et bon Année
Frohe Weinachten und ein Gutes Neues Jahr
Merry Christmas and Happy New Year
Buon Natale e Felice Anno Nuovo
INDUSTRY
LANGUAGE
SERVICES
Azkue Auzoa 1-P.K. 37 IMH • Tel. 943 74 40 40 Faxa 943 74 16 54 • e-maila: ils@ils.es • www.ils.es


Belaustegi
Baserria
JATETXEA
Zoriontasuna, bakea eta
maitasuna ez daitezela
zure etxean falta
31 eguerdian zabalik
1 egun guztia zabalik
5 eta 6 zabalik
Belaustegi baserria jatetxea
San Migel Gaina z/g · Tel. 943 74 31 02
www.belaustegi.com

**Muruamendiaraz** gozotegiak

*Gabon jai gozo-gozoak opa dizkizue herritar guztioi.*

Muruamendiaraz
ELGOIBAR
San Bartolome, 34-35 - Tel. 943 74 03 45

*Turroi eta mazapanetan aukera zabala*



**LEIGAR** ELEKTRAGAILUAK
MANU LEIZABE LOYOLA





TB · BIDEOA · HI-FI · DVD
*Salmenta eta zerbitzu teknikoa*
*Errosario, 8 · Tel. 943 74 00 54*

API
Burtsa informatikoa



**GABILONDO**
317 api
INMOBILIARIA AGENTZIA
Zuzenbidean lizentziatua

API { Edurne Gabilondo Loyola
Jose Mª Azpeleta Iturricastillo

*Jai zoriontsuak denoi*

Errosario 21, behea • ELGOIBAR • Tel: 943 74 44 67

# MERKATU PLAZA

*Uste duzuna baino gehiago!*



**Amaia** FRUTADENDA



**Arantxa eta Marian**
FRUTADENDA



**ART-FRUIT** FRUTADENDA



**IBARRE** OKINDEGIA



**FRAILE** HARATEGIA



**Amparo eta Inma**
HARATEGIA



**M. Angeles**
FRUTADENDA



**TXIRIBOGA** TABERNA



**Zabala** FRUTADENDA



**Zabala** URDAITEGIA

*Gabon zoriontsuak denoi!*

# "behin batean ... gabonak"

## idazlehiaketa 2004



"Behin batean ... Gabonak". Hauxe da gure txikienak euskaraz idaztera animatzeko prestatu dugun idazlehiaketa berriari ipini diogun izena. Esan bezala, lehiaketa txikienei zuzenduta dago, eta hiru atal izango ditu: Gabonetako marrazkia; Olentzerori gutuna; eta, azkenik, ipuina. Eta lehiaketaren lehen urtea izanik, gustura geratu gara izan duen erantzunarekin. Izan ere, lan asko eta politak jaso ditugu.

Esku artean daukazun gehigarrian, lehiaketaren mamia jasotzen ahalegindu gara. Lan irabazleak ikusi eta irakurtzeko aukeraz aparte, egileak ezagutzeko modua ere eman nahi dizuegu. Besterik ez. Ea gehigarri hau lagun hartu eta une gozo bat pasatzeko moduan izaten zareten.

Atxutxiamaika

### Jasotako lan kopurua

- Gabonetako marrazkia: 65 lan
- Olentzerori gutuna: 117 lan
- "Sekretu bat daukat" ipuina: 72 lan

**Antolatzaileak:**

atxutxiamaika
AISIALDI TALDEA

ELGOIBARKO IZARRA
KULTUR ELKARTEA

**Laguntzaileak:**

ELGOIBARKO UDALA

EUSKO JAURLARITZA

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

# LH 1 eta 2
# GABONETAKO MARRAZKIA



**Ihart Garitaonaindia, "Gabonetako marrazkia" lehiaketako irabazlea. 7 urte.**



-Marraztea gogoko duzu, ezta?

Egunero marrazten dut zer edo zer. Etxeak, mendiak eta katuak marraztea gustatzen zait, eta hobekien etxeak irteten zaizkit. Kolore guztietatik gorria gustatzen zait gehien.

-Olentzero eta Mari Domingi jantzi moderno eta dotoreekin marraztu dituzu, takoi eta guzti.

Bai, nola janzten ziren ahaztuta neukan, iaztik ez baititut ikusi, eta nik asmatu nizkien jantziak.

-Handitan moda diseinatzailea izan nahi al zenuke?

Ez, andereñoa izan nahi dut.

-Zer eskatu diozu Olentzerori?

Bizikleta handi bat, "Brats"en telefonoa, kopin handi bat… Erregeak izebaren etxera ailegatzen dira, baina han ez dut ezer eskatzen, opariak ezustekoak izaten dira. Gogoko ditut sorpresak.

-Non jarriko duzu saritutako marrazkia?

Nire edo amatxoren koartoan.

## SARIDUNAK:

1. saria: Ihart Garitaonandia
2. saria: Aitor Barrutia

# LH 3 eta 4

# OLENTZERORI GUTUNA

Kaixo Super
Olentzero,
Ondo al
zaude?
Super Atxis ondo
dago baina moko asko
ditu!
Hau eskatuko dizut, opari hauek!
Nire amarentzat super betadine, ez
dena gastatzen.
Nire aitarentzat super kamiseta
barrukoa, ileak ez ateratzeko.
Nire ahizparentzat super Sin Chan-
en kuleroak ez zikintzeko kakarekin.
Niretzat jarabe Dalsy-a ekarri.
Atxis!
Agur
Super Atxis



Nora Bastida, "Olentzerori gutuna" lehiaketako irabazlea.
8 urte.

-Zergatik jarri diozu zeure buruari Super Atxis izena?

Ikastolan beti eztarriko azkura izaten dut, eta eztarria garbitu nahian ibiltzen naiz beti. Ez dut "atxis" askorik egiten, baina izen hori ipintzea bururatu zitzaidan.

-Zergatik eskatu duzu amarentzat amaitzen ez den *betadine*?

Mendira joaten garenean mina hartzen dugulako. Amak *betadine* ematen digu, eta gastatu egiten da.

-Katarro asko izaten al duzu urtean zehar Olentzerori jarabea eskatzeko?

Ez. Ez diot benetan eskatu, gutun hau gezurretakoa da. Klaseko gehienok gezurretako gutuna egin dugu. Nik benetan flauta bat eskatu diot Olentzerori.

-Eta ekarriko dizula uste al duzu?

Bai, formala izan naiz, eta espero dut Olentzero ondo portatzea.

-Erregeei eskatu al diezu oparirik?

Ez, nik beti Olentzerori eskatzen diot. Erregeak ikustera joango naiz, baina gehiago gustatzen zait Olentzeroren kalejira.

## SARIDUNAK:

1. saria: Nora Bastida
2. saria: Itziar Aldalur

# LH 5 eta 6
# "SEKRETU BAT DAUKAT"
# Ipuina

Marina gurasoekin bizi da baserritxo batean mendian. 10 urte ditu baina bere jakinduriagatik edonork esango luke urte pare bat gehiago dituela. Nahiko altua da eta bi mototsa luze eramaten ditu bere ile horitik zintzilik.

Olentzero etorri baino aste bat lehenago, Marina bere egurrezko txotxongiloarekin jolasten ari zen. Orduan, leihoa irekita zegoela konturatu zen eta ixtera joan zenean harrituta geratu zen, izan ere, oraintsu itxi baitzuen leihoa. Leihotik begiratu eta hortxe ikusten ez du ba, astotxo bat, lurrean etzanda, minez irrintzika, hanka odoletan zeukala. Marina eskaileran behera ziztu bizian jeitsi, eta botikin kutxa hartuta, astoari hanka sendatzera joan zen. Astotxoaren errukiz Marinaren begi distiratsuetatik malko gardenak erori ziren. Baina zauria zapi txuri batekin lotu ondoren, ukuiluan gorde zuen astoa. Hortik aurrera, aste osoan sekretupean eduki zuen ukuiluan oso ondo zainduta. Baina Olentzero zetorren gauean, astoa bere jabeari itzuli nahi izan zion Marinak, arazoa ordea jabea zein zen jakitea zen.

Hurrengo goizean, opariak ikustera jeitsi zen Marina, oso pozik zegoen, baina hor ez zegoen inolako opariri**k**! Marina ukuilura joan zen. Han zeuden opariak! Opari mordoska bat zegoen Marinarentzat. Falta zena ordea, astotxoa zen. Astoa egoten zen lekuan honela zioen notatxo bat aurkitu zuen:

"Eskerrik asko nire astotxoa horren ondo zaintzeagatik.
Bihotz-bihotzez, Olentzero"

Aurrerantzean, Marina Olentzeroren lagun mina izan zen eta zoriontsu bizi izan ziren.

Nerea Gurrutxaga



Nerea Gurrutxaga, "Sekretu bat daukat" ipuin-lehiaketako irabazlea. 10 urte.

-Gustuko al duzu idaztea?

Bai, asko; ipuinak idaztea gustatzen zait gehien. Ikastolan ipuinak idazteko esaten digutenean, nik oso gustura idazten ditut.

-Zein izan da irakurri duzun azken liburua?

"Bostak, beste abentura berri bat". Irakurtzea ere asko gustatzen zait, batez ere, abenturazko ipuinak. Euskaraz eta gazteleraz irakurtzen dut.

-Zure ipuineko protagonista bezala, Olentzeroren laguna izatea gustatuko al litzaizuke?

Bai. Olentzerorekin batera etxez etxe opariak banatzea gustatuko litzaidake, eta gaizki portatu direnei ikatza lagako nieke.

-Zer eskatu diozu Olentzerori?

Discman bat eskatu behar nion, baina eman didaten saria horixe izan denez, beste zerbait eskatu beharko diot. Oraindik ez dut pentsatu.

-Ondo portatu al zara aurten?

Baietz uste dut, eta Olentzero ere ondo portatuko dela uste dut.

-Olentzero ala Erregeak dituzu nahiago?

Olentzero, opari gehiago ekartzen dizkit, baina erregeei ere eskatuko diet zerbait.

## SARIDUNAK:

1. saria: Nerea Gurrutxaga
2. saria: Izaskun De Marcos

BASURCO
Inmobiliaria API-368

ZURICH
ASEGURUAK






Deba kalea, 2 behea · Tel.: 943 748 013 · Faxa: 943 748 135

*Gabon jai zoriontsuak eta urte berri on*

# Aubixa
## Kultur Erakundeak
## eta
## Bertsozale Elkarteak





*Gabon Zoriontsuak*
*zortziko erara*
*Elurra iritsi da*
*mendi gainetara*
*ta euskararik gabe*
